

Euskal AEn nekazaritzako ustiategi gutxiago dago, baina daudenak handiagoak dira

Euskal nekazaritza sektorean emakumearen presentziak gora egin du

Euskal AEn 2009an 16.445 nekazaritza ustiategi zeuden, hau da, 1999an baino 8.293 gutxiago (-% 33) termino homogeneoetan, EUSTATEk egindako 2009ko Nekazaritza Zentsuko behin-behineko datuen arabera. Beherakada hau hiru lurralde historikoetan izan da, handiena Bizkaian (-% 37), ondoren Araban (-% 33) eta txikiena Gipuzkoan (-% 30).

Euskal AEko ustiategien osoko batez besteko neurria eta nekazaritzako azalera erabilgarria (NAE) 16,9 eta 12,3 hektareakoa da, hurrenez hurren. Hau da, azkeneko hau % 18 hazi da 1999arekin alderatuz gero. Alde handiak daude Arabaren (29,7 ha eta 28,3 ha) eta beste bi lurraldeen artean; Bizkaia (9,5 ha eta 6,6 ha) eta Gipuzkoa (18,4 ha eta 9,5 ha).

Ustiategi kopurua eta nekazaritzako azalera aprobetxamendu motaren eta lurralde historikoaren arabera sailkatuta. 2009. urtea

	EUSKAL AE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Ust.	Ha.	Ust.	Ha.	Ust.	Ha.	Ust.	Ha.
LURRIK GABEKO USTIATEGIAK	35		12		14		9	
USTIATEGI LURDUNAK (AZALERA OSOA)	16.410	277.234	3.534	105.433	7.075	67.524	5.801	104.277
Lur landuak	14.478	78.472	3.205	69.047	6.110	5.458	5.163	3.967
Belarkiak	12.290	61.612	2.342	55.790	5.339	3.403	4.609	2.418
Frutarbolak	9.575	2.094	930	103	4.566	809	4.079	1.182
Olibondoak	369	124	228	112	92	1	49	10
Mahastiak	1.698	14.567	1.161	13.004	411	1.225	126	339
Mintegiak eta beste zurezkoak	130	76	31	38	55	21	44	17
Larre iraunkorretako lurrak	13.730	122.976	1.561	30.712	6.671	40.997	5.498	51.267
Larre eta belardi iraunkorrak	13.619	120.898	1.542	30.241	6.621	40.511	5.456	50.146
Larreitarako bestelako azalerak	471	2.078	81	472	153	485	237	1.121
Beste lur batzuk	12.018	75.777	2.237	5.672	5.018	21.065	4.763	49.040
sastrakadiak	1.044	2.666	318	601	298	853	428	1.212
Baso-zuhaitzen espezieak	8.186	72.134	632	4.797	3.650	19.827	3.904	47.511
Bestelako azalerak	7.092	976	1.900	274	2.414	384	2.778	318
Nekazaritzako azalera erabilia	16.352	201.457	3.522	99.761	7.046	46.459	5.784	55.237

Iturria: Eustat. 2009ko Nekazaritza Zentsua

Nekazaritzako ustiategietan ganadua kontzentratzen jarraitzen da

2009ah mota guztietako ganadu ustiategiak gutxitu ziren Euskal AEn, baina abeltzaintza guztietan ustiategi bakoitzeko batez besteko buru kopuruak gora egin zuen.

Beherakadarik handienak esne-behietan eta txerri-aziendetan izan dira. Azken hamar urteetan esne-behien eta txerramen ustiaketek % 68,5 eta % 68,2 egin dute behera, hurrenez hurren; hala ere, ustiategi bakoitzeko esne-behi kopuruak gora egin du eta 1999an ustiategi bakoitzean 13 baldin bazeuden, 2009an 26 zeuden (+% 100) eta txerramen kopuruak ere gora egin du aldi berean, 9tik 10era hazi da (+% 11).

Haragitarako behien ustiategi kopuruak ere behera egin du (-% 33), baina ustiategi bakoitzean dagoen buru kopurua 8tik 11ra igaro da (+% 30). Azpimarratzekoa da zaldi-azienden gorakada (+% 25) eta errule kopurua mantendu izana, bi kasu hauetan ere ustiategi bakoitzeko buru kopuruak gora egin du.

Abeltzaintzako ustiategi eta buru kopurua motaren eta lurralde historikoaren arabera.
2009. urtea

	EUSKAL AE		ALAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Ust.	Abelburuak	Ust.	Abelburuak	Ust.	Abelburuak	Ust.	Abelburuak
Behi-aziendak	5.946	135.448	674	36.565	2.685	49.469	2.587	49.414
Ardi-aziendak	4.546	271.433	521	63.994	1.859	65.331	2.166	142.108
Ahuntz-aziendak	1.616	21.549	151	3.603	896	12.250	569	5.696
Zerri-aziendak	902	16.102	86	8.900	463	2.496	353	4.706
Zaldi-aziendak	3.504	19.249	412	4.501	1.671	7.450	1.421	7.298
Hegaztiak	6.304	1.596.636	640	158.680	2.625	782.026	3.039	655.930
Untxi amak	1.858	29.957	147	2.069	926	14.579	785	13.309
Erlauntza	205	2.650	72	874	62	1.302	71	474

Iturria: Eustat. 2009ko Nekazaritza Zentsua

Gazteen parte hartze txikiagoa eta emakume gehiago nekazaritza ustiategietako buru

Ustiaketan nortasun juridikoari dagokionez, 1999 eta 2009 artean ez da ia aldaketarik egon; % 95 inguru pertsona fisikoenak dira eta % 5 pertsona juridikoenak. Araban pertsona juridikoak % 15 baino zerbait gehiago dira eta Bizkaian eta Gipuzkoan ustiategi guztien % 2 eta 3 artean daude.

Ustiategiko buruaren batez besteko adina 58 urtekoa da Euskal AE osoan; Araban, batez besteko adin hori 54 urte da, Bizkaian 60 eta Gipuzkoan 59. Ustiategiko buruaren batez besteko adina 1999 eta 2009 artean ia mantendu egin den arren, azken hamarkadan gazte bat (40 urtez beherakoa) ustiategiko buru izateak gero eta garrantzi erlatibo txikiagoa du, eta ehuneko 3 puntu erori da, gutxi gorabehera. 40 eta 65 urte artekoak ia 5 puntu igo dira eta 65 urtez gorakoek ehuneko 2 puntu inguruko beherakada izan dute.

Ustiategiko buru emakumea izateari dagokionez, 1999an % 24,4 izatetik 2009an % 30,9 izatera igaro dira. Era berean, emakumea ustiategiko buru izate horrek gora egin du hiru lurraldetan, adin talde desberdinetan (40 urtez azpikoak, 40 eta 65 urtekoak eta 65 urtez gorakoak) eta nahiz nortasun fisikoa nahiz juridikoa duten ustiaketan.

Ustiategiko buruaren generoa eta adina.
1999 eta 2009 urteak

	GUZTIRA	GIZONA		EMAKUMEA	
		Kop.	%	Kop.	%
1999ko ZENTSUA					
GUZTIRA	24.700	18.679	75,6	6.021	24,4
<40 urte	3.126	2.546	81,4	580	18,6
40 - 65	12.944	9.834	76,0	3.110	24,0
>65 urte	8.630	6.299	73,0	2.331	27,0
2009ko ZENTSUA					
GUZTIRA	16.445	11.365	69,1	5.080	30,9
<40 años	1.626	1.253	77,1	373	22,9
40 - 65	9.393	6.579	70,0	2.814	30,0
>65 años	5.426	3.533	65,1	1.893	34,9

Iturria: Eustat. 2009ko Nekazaritza Zentsua

Ustiategi bakoitzeko urteko batez besteko lan-karga 1999ko 0,7 ULUtik 2009ko 0,9 ULUra igaro da (ULU 1 -Urteko Lan-unitatea- 228 lanaldi oso edo 1.826 ordu da gutxienez). ULU bat baino gehiagoko lan karga duten ustiategiak gutxitu egin dira azken hamarkadan; 2009ko zentsuan ustiategien % 40k ULU bat baino gehiagoko kargak dituzte eta 1999an % 42 ziren. Joera hau ez da soilik Euskal AE mailakoa, hiru lurraldeetan ere gauza bera gertatzen da (Aran bereziki) ustiategiaren nortasun juridikoa eta ustiategiaren buruaren adina dena delakoa izanda ere.

2009an Euskal AEko ustiategien % 7 inguruk langileak falta dituzte, ustiategian lana egiten dutenek lan gehiegi dutelako, behar adina denbora ez dutenez lanak behar bezala egiten ez

direlako edo lan horiek egiten ez direlako. Era berean, aldi baterako langileak behar dituzten ustiatzearen % 15ean kontratazioarako arazoak dituzte (eskura dagoen jendea edo kualifikatuak) eta langile finkoak eskatzen dituztenen % 12k ere zailtasun horiek ditu.

Erronka berriak: jarduerak dibertsifikatu, produktuak eraldatu, nekazaritza eta ingurumeneko neurriak, nekazaritza ekologikoa...

Euskal AEko ustiatzearen % 30 ingurutan beste jarduera osagarri batzuk egiten dira, ustiatzei bertako baliabideak erabilita. Jarduera hauen artean basogintzarekin lotutakoak nabarmentzen dira (ustiatzearen % 24ean), nekazaritzako produktuak eraldatzen dira (% 6,4) eta turismoarekin, ostatatzearekin eta aisiarekin lotutako beste jarduera batzuk dituzte (% 1,5).

Era berean, euskal ustiatzearen % 20k landa garapenerako neurriren bat jaso du azken hiru urteetan. Aipatu beharrekoak dira hauek ere: nekazaritza eta ingurumen arloko neurriak jasotakoak (% 8), ustiatzei modernizatu dituztenak (% 3) eta nekazaritza eta basogintzako produktuen balio gehituari lotutakoak (% 2).

Nekazaritza ekologikoa asko ezarri gabeko neurria den arren, gero eta garrantzi handiagoa du Euskal AEn. 2009ko Nekazaritza Zentsuaren arabera, Nekazaritza Ekologikoa Arautzeko Kontseiluan 126 ustiatzei daude erregistratuta eta 718 ha-ko azalera dago aitortuta.

Ohar metodologikoa: Datuak 2008ko urriaren 1etik 2009ko irailaren 30era bitartekoak dira, 2009ko nekazaritza urtekoak. Biztanleriaren eremua gutxieneko hauek dituzten nekazaritza ustiatzei dagokie: Nekazaritzako Azalera Erabilgarriko (NAE) hektarea bat; 0,2 ha barazki, lora edo landare apaingarriak aire librean eta estalian edo negutegietan edo fruta arbolak (zitrikoak barne) ureztatuta edo haztegietan; 0,1 ha negutegietako barazkietan; 0,1 ha negutegietako lore eta landare apaingarrietan; 0,5 ha tabako; 0,5 ha lupulu edo kotoi; 1999ko Nekazaritza Zentsuan 0,75 Europako Dimentsio Unitate (EDU 1=1.200 €) edo gehiagoko Guztizko Marjina Gordina zuten abeltzaintzako unitate (AU) bat edo gehiago izan zituzten nekazaritzako ustiatzeiak.

Eragiketa hau Estatistikako Institutu Nazionalarekin (EIN) eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako Sailarekin elkarlanean egin da Euskal AEn.

Aurkeztutako datuak behin-behinekoak dira eta titularrak Euskal AEn bizi eta ustiatzei ere Euskal AEn dituztenei dagozkie.

Zentsuen arteko alderaketan 2009ko Nekazaritza Zentsurako ezarritako irizpideak hartu dira kontuan eta 1999ko Nekazaritza Zentsuarekiko biztanleriaren eremua mugatu egin du, gorago aipatu bezala.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako: Mariano González Izquierdo

Tel.: +34-945-01 75 42 Faxe: +34-945-01 75 01